

/ Nabarmenezkoak

- > Getxoko 2025-2029ko Adikzioen I. Tokiko Plana aurkeztu da (2. or.)
- > Unai Elorriaga, 2025eko Euskarazko Literaturaren Euskadi Saria (3. or.)
- > CD Getxok Alavesen aurka jokatu du Errege Kopan (4. or.)

* Arene parkea errealitate bihurtu da (4. or.)



Kontzertua. Hilak 11, larunbata, 19:30ean, Romoko San José Obrero elizan, Orfeón condal de Noreña (Asturias) eta Ondarreta Abesbatza (Getxo).

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Asteazkenean, bisitak eta ibilbide gidatuak, eta 3D inprimaketa tailerra.

A-
GENDA

Udalak alegazioak aurkeztu ditu etorkizuneko hotelak kirol-portuan izango duen eragina mugatzeko eta ingurunean integratuko dela bermatzeko

- Udalaren proposamenak erai-kin berriak Arriluzeko Naufragoen Etxearen altuera ez gainditzea defendatzen du.
- Gainera, diseinua hainbat bolumenetan zatitzea eskatzen da, ikusmen-inpaktua minimizatzeke.

Udalak alegazioak aurkeztu ditu Bilboko Portuaren Plan Berezia jendaurrean jartzeko izapidean, etorkizuneko Kirol Portuko hotelak gehiegizko ikusmen-inpaktua izan ez dezan. Udalaren proposamenak paisaiarekin, historiarekin eta getxotarrek eman diezaieketen erabilerekin bateragarria den garapen turistikoaren eredia defendatzen du.

Esan bezala, hirigintza-dokumentuak aukera ematen du Kirol Portuaren eremuan hotel bat eraitzeko, "portuaren eta hiriaren arteko interakzioaren" eremuaren barruan. Udala bat dator turismoari lotutako jarduera ekonomikoa bultzatzearen garrantziarekin, baina ezinbestekotzat jotzen du edozein garapen orekatik eta ingurunean integratuta egitea.



Egindako alegazioek bi baldintza nagusi ezartzen dituzte:

- Edozein hotel-eraikin berriren gehieneko altuerak ezin izango du Arriluzeko Naufragoen Etxearena gainditu.
- Bolumena gutxienez bi bloketan banatu beharko da, fatxada handi jarraituak saihestuz, Ereagako portuan edo hondartzan pantaila-efektua eragin dezaketenak.

Neurri horiekin, Udalak ziurta-

tu nahi du kirol-portua espazio irekia, integratua eta herritarren zerbitzura dagoena izaten jarraituko duela.

Amaia Agirre alkateak azpimarratu du: "kontua ez da soilik altuerak edo bolumenak erregulatzea, getxotarren ondare komuna den espazio bat zaintzea baizik. Gure lehentasuna da kirol-portua topaleku, gozamen eta jarduera ekonomikorako gune izaten jarraitzea, gure udalerraren ingurunearekin eta bizitzarekin orekan. Ikuspegi huma-

nista da hori: hirigintza-garapenak herritarren zerbitzura egon behar du beti".

Bestalde, Alvaro González Hirigintzako zinegotziak zehaztu duenez, "alegazioek hirigintza-integratioko irizpide teknikoak erantzuten diete. Altuera mugatzen dugu neurrigabeko ikusmen-inpaktua ekiditeko, eta diseinua bolumen txikiagotan zatitzeko eskatzen dugu, egungo paisaiara egokitzeko. Etorkizuneko edozein proiektu Getxoko fisionomiarekin bateragarria dela bermatzeko modu bat da".

Udalak gogorarazi du, gainera, egungo Udal Gobernuaren hauteskunde-programak jada jasotzen zuela hotelen garapena bultzatzeko konpromisoa, etxebizitzari eragin gabe, hiri-eredu orekatu, iraunkor eta ongizate kolektiboaren zerbitzura dagoenaren alde eginez. "Getxok jarduera ekonomikoa eta aukera berriak behar ditu, baina ez edozein prezioan. Gure konpromisoa da ematen dugun urrats bakoitzak gure bizilagunen bizi-kalitatea indartzea", aipatu zuen, azkenik, alkateak.

Kirol Portuaren kudeaketa uzteko asmoa jakinarazi du Abra Getxo Portek

Abra Getxo Port (AGP) enpresa emakidadunak ofizialki jakinarazi du Kirol Portuaren kudeaketa uzteko asmoa duela, El Abra-Getxo Kirol Portua Sozietateak prentsa ohar baten bitartez aditza eman duenez.

Albisteak harridura eta deserosotasuna sortu ditu sozietatean, "zerbitzu publiko baten etorkizuna ezin baita enpresa pribatu baten aldebakarreko erabakiaren esku geratu. Horregatik, berehala eta atzerapenik gabe aktibatu dugu aurrei-

kusitako prozedura".

Talde teknikoak eta juridikoak dagoeneko txosten bat lantzen ari dira, Kirol Portuaren Administrazio Kontseiluaren esku jarriko dena lehenbailehen. Organo horretan Kontseiluan dauden talde politiko guztiak daude ordezkatuta, eta organo horrek erabaki behar du uko egite hori onartzen duen ala ez.

Testuinguru horretan, sozietateak uste du "oso larria da alderdi



politiko batek berehala albiste hau publiko egin izana, prozedura itxi aurretik eta Administrazio Kontseiluko gainerako taldeek informazio ofizialik izan gabe. Horrekin ez zaie

herritarrei laguntzen, eta, nahasmena eta zarata sortzen da".

Amaia Agirre alkate eta Kirol Portuko presidenteak hurrengo lasaitasun mezu argia zabaldu du: "Kirol Portuak normaltasunez funtzionatzen jarraitzeko beharrezko konponbideak lantzen ari gara. Zerbitzua bermatuta dago, eta Getxorako eta Bizkairako funtsezkoa den azpiegitura horren etorkizuna seriotasunez, gardentasunez eta irmotasun instituzionalez kudeatzen jarraituko da".



URRIAK 9 OSTEGUNA

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Ibilbide gidatua. 18:00- 19:30, "Getxoko Andra Mariko ingurua" Andra Mariko elizatik (euskaraz). Doan. Erreserbak: 627 89 93 20, toponimia@gmail.com.

Getxo Eszena. Dantza. Muxikebarrin, 20:00etan, "Go Figure", Sharon Fridmanekin. 10€.

Hitzaldia. "Hitanoa eta generoa XXI. mendean", 18:00etan, Gurari Emakumeen Etxean. Hizlaria: Garbiñe Bezeziartua Etxebarria, EHUko irakaslea eta ikertzailea. Euskaraz.

URRIAK 10 OSTIRALA

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Bisita gidatua. 11:30-12:00, Nuestra Señora del Carmen udal hilerria (gaztelaniaz). Doan. Erreserbak: 94 491 08 00, infoturismo@getxo.eus

Kontularien Kluba. Denboraldiaren hasiera. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Sucedió en la biblioteca" (gaztelaniaz).

Aurkezpen literarioa. Benta guanean (Angel etorbidea 49), 19:30ean, "Senderismo cultural por Getxo" liburaren aurkezpena, Iñaki Fernández Arriaga egilearen eskutik.

Zine foruma. Cultura y sociedad. Un espacio de diálogo. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "La persona ante las dificultades". Juan Antonio Bayonaren "Lo imposible" filmaren proiektzioa (gaztelaniaz). Hizlaria: José Manuel Gutiérrez (Arte Historioaren irakaslea). Doan. Antolatzailea: iCmedia Euskadi.

Getxo Eszena. Antzerkia. Muxikebarrin, 20:00etan, "Lo peor que le puede pasar a un niño" (gaztelaniaz). Ekoma Teatro & Javier Liñera. 10€.

URRIAK 11 LARUNBATA

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Ibilbide gidatua. 11:00-13:00, "Historias secretas de las rocas de Palacio", Bizkaia Zubitik (gaztelaniaz). Doan. Erreserbak: 666 85 77 61, ekobideak@gmail.com Bisita gidatua. 17:00-18:00, Punta Begoña Galerietara. Doan. Erreserbak: www.puntabegonagetxo.eus

VII. Getxo Dantzan. 11:30-20:00, Santa Eugenia plazan, kalejira, dantzaldia, igel-topa eta txapel jaurtiketa, herri bazkaria eta erromeria.

Ipuin kontalaria. Storytime. 11:00etan, Romo Kultur Etxean, "Phanton manor" (ingelesez). 3-7 urte. Doan. Izena emateko: getxo@kidsandus.es / algora@kidsandus.es

Kontzertua. 19:30ean, Romoko San José parrokiaren Orfeón condal de No-reña (Asturias) eta Ondarreta Abesbatza (Getxo) taldeen emanaldia.

Getxo Eszena. Dantza. Muxikebarrin, 20:00etan, "Lost letters", Lucia Lacarra Balletarekin. 18€.

Martxa nordikoa. 10:00etan irteera Algortako batzokitik, Getxon ibiltzeko. Beharrezkoa da parte-hartzea baieztatzea (hilaren 10a baino lehen) nw.itxartu@gmail.com helbidean. Antolatzailea: Itxartu.

URRIAK 12 IGANDEA

XLII. Ibilaldi neurtua. Irteera Algortako batzokitik. 08:00etan (nagusiak) eta 10:00etan (10 urtera arte). Izena emateko: www.itxartu.eus. Antolatzailea: Itxartu Taldea.

Getxo Eszena. Antzerkia. Muxikebarrin, 20:00etan, "Camino a la Meca" (gaztelaniaz), Lola Herrera, Natalia Dicenta eta Carlos Olallarekin. Sarrerak agortuta.

URRIAK 13 ASTELEHENA

Hitzaldia. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "La abundancia de contenidos, la desinformación y la Inteligencia Artificial: un mundo al revés". Hizlaria: Juan Carlos Miguel de Bustos (Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle emeritua. Ekonomia, Filosofia eta Informazio Zientzietan lizentziatua). Antolatzailea: Sinope Kultur Elkarte. <https://sinopeblog.wordpress.com>

URRIAK 14 ASTEARTEA

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Ibilbide gidatua. 18:00-19:30h, "Neguri", Carmen elizan (euskaraz). Doan. Erreserbak: 627 89 93 20, toponimia@gmail.com

URRIAK 16 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Cuenta con África". Doan. Izena emateko: www.getxo.eus/apuntazaitez

URRIAK 17 OSTIRALA

Getxo Eszena. Dantza. Muxikebarrin, 20:00etan, "Halley", Led Silhouettearekin. 10€.

Zine foruma. Cultura y sociedad. Un espacio de diálogo. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "El testimonio de un campeón". Ron Howarden "Cinderella man" filmaren proiektzioa (gaztelaniaz). Hizlaria: José Manuel Gutiérrez (Arte Historioaren irakaslea). Doan. Antolatzailea: iCmedia Euskadi.

Hitzaldia. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Introducción a la Música Clásica". Hizlaria: Diego de Amigo, biolinista, konpositore garaikidea eta Barakaldo eta Gasteizko kontzertuorietako irakaslea. Antolatzailea: All 'Antica Musica.

Ondarearen Europako Jardunaldiak. 3D inprimaketa tailerra. 10:00etatik 13:00etara, Getxo Sormen Huben, "Ondare Arkitektonikoaren Ordezkaritza" (gaztelaniaz). Erreserbak: 653 72 52 59 3dian@3dian.org

URRIAK 18 LARUNBATA

Getxo Eszena. Antzerkia. Muxikebarrin, 20:00etan, "El cuarto de atrás", Emma Suárez, Alberto Iglesias eta Nora Hernándezekin. 18€.

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Ibilbide gidatua. 10:30etik 13:30era, "Errotatik Dorrera: arkitektura Bolue haranean", Bolue hezegunean (gaztelaniaz). Doakoa. Erreserbak: 666 85 77 91, ekobideak@gmail.com **Bisita gidatua.** 11:30etik 12:30era, "Hilerri bat itsasoari begira" (euskaraz). Doakoa. Erreserbak: 94 491 08 00 infoturismo@getxo.eus **Ibilbide gidatua.** 11:00etatik 13:00etara, "Ondare arkitektonikoa Romo auzoan" (gaztelaniaz). Santa Eugenia plazatik. Doakoa. Erreserbak: 675 00 81 35 pilar@zabalketa.org

URRIAK 19 IGANDEA

Getxo Eszena. Haur ikuskizuna. Muxikebarrin, 18:00etan, "Operetta", Cor de Teatrearekin. 10€.

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Ibilbide gidatua. 10:30etik 13:30era, "Neurtu zure pausoa: irisgarritasuna Ondarean" (euskaraz/gaztelaniaz), Bizkaia Zubitik. Erreserbak: info@asebier.org **Bisita gidatua.** 12:00etatik 13:00etara, Punta Begoña galerietara. Doakoa. **Bisita antzertua.** 17:00etatik 18:00etara, "Horacio Echevarrietak harrera egingo dizu" (euskaraz/gaztelaniaz). Doakoa. Erreserbak: www.puntabegonagetxo.eus



2025-2029ko Getxoko Adikzioen Toki-Plana aurkeztuta

Udalak Getxoko 2025-2029 aldirako Adikzioen Toki Plana aurkeztu du. Plan hori plangintza, antolamendu eta koordinaziorako tresna estrategikoa da, eta osasunaren sustapenaren, eskaintzaren kontrolaren eta adikzioen prebentzioaren arloan gauzatuko diren programa eta jardura guztiak biltzen ditu.

Getxok urte asko daramatza adikzioen esparruan lanean, bai Udaletik era aitziandarian bai Osasun Sailko eta Osakidetzako zerbitzuekin. "Udal gisa, Plana bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu, uste baitugu Adikzioen Prebentzio Zerbitzuak egiten duen lana hobetzen lagunduko digula; udalerrri osasuntsuagoa eta droga-kontsumoak eta adikzio-jokabideek eragindako arriskuen aurrean sentsibilizazio handiagoa izango duen herritarrak lortze aldera", nabarmendu zuen Amaia Aguirre alkatereak aurkezpenean.

40 ekintza Plana parte-hartze komunitarioarekin egin da, 15 elkarrizketa eta hiru talde fokalen bidez, besteak beste. Planak 40 ekintza ditu hurrengo lau helburuei lotuta:

- Esparru osasuntsuak sustatzea eta eskuragarritasuna gutxitzea. Ekintzen artean tabakoaren, alkoholaren eta cannabisaren kontsumoa desnormalizatzea; hezkuntza-proiektu bat zigorraren alternatiba gisa, drogen salmenta eta bide publikoan alkohola kontsumitzea kontrolatzea, sentsibilizazio alorrekoak...
- Osasuna eta adikzioen prebentzioa sustatzea, hainbat esparrutako jardueren bitartez.
- Ezagutza eta berrikuntza garatzea eta hedatzea.
- Sareko lana finkatzea, adibidez, Ondoan Udal Zerbitzuak egiten duena.



Ikasle frantsesei harrera

Mihaela Jilavu Hezkuntza zinegotziak Libourneko (Frantzia) Collège Marguerite Duras ikastetxeko ikasle talde bat hartu zuen joan den astean, Udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Azkorri ikastetxearekin hezkuntza-trukea egiten ari dira. DBHko 3. mailako 23 neska-mutilek parte hartu zuten ekitaldian, Getxoko ikaskideekin eta bi ikastetxeetako irakasleekin batera. Hezkuntza-trukearen zazpigarren urte honetan, besteak beste, Bizkaia Zubia, Guggenheim museoa eta gure ingurune naturala ezagutu dituzte.



Eurgetxoren X. urteurrena

Eurgetxok hamargarren urteurrena ospatu berri du elkarte europazale gisa, 2015etik garatutako jarduerak gogora ekartzeko bazkari batekin. Urte horretan antolatu zuen lehen bidaia Bruselara, Europako erakundeak gertutik ezagutzeko. Orditik, Europako hiriburuetarako bidaiak, dibulgazio hitzaldiak, txangoak eta anaitasun bazkariak antolatu ditu, besteak beste. Etapa berrian, norberaren errealizaziorako eta pentsamendu kritikoa sustatzeko topagune izan nahi du. Kontakua: eurgetxo@outlook.com. Bloga: www.eurgetxo.wordpress.com

"Plana orain arte egindako lana indartzen duen tresna da, eta adikzioen aurrean kontzienteagoa, informatuago eta babestuago den komunitate baterako bidea markatzen du. Izan ere, Getxo osasuntsuagoa eraikitzea zeregin kolektiboa da, eta guztiok — erakundeak, gizarte-eragileak, familiak eta gazteak — zeregin funtsezkoa dugu horretan", amaitu zuen Carmen Díaz Gizarte Kohesiorako zinegotziak. Informazioa: <https://labur.eus/yw7j3cl6>

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

2025eko Aixe Getxo! Kultur sarietarako hautagaitzak

Urriaren 13ra arte, herritarrek Aixe Getxo! sarien hamalagarren ediziorako beren proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte.

Sari hauen bitartez, ohi denez, kulturari lotutako hainbat modalitate edo eremutan egindako lana sarituko da, besteak beste: ikusizko eta ikus-entzunezko arteak, arte plastikoak, arte eszenikoak, musika klasikoa eta garai-kidea, egungo musika, literatura, diseinua, arkitektura eta espazio publikoa, gastronomia, kultura hezkuntza eta balioetan, kultura zientifikoa eta berritzailea eta kultura-ondarea (hautemangarria eta hautemangaitza).

Horiez gain, gazteen artean kultur lana sustatzeko Aixegaztea saria izango da eta arloarekin zerikusia duten lagun edo kolektiboen ibilbide artistiko edo profesionala aintzatesten duen saria ere emango da. Guztira, 14 kate-

goriatara aurkeztu ahal izango dira hautagai-proposamenak.

Proposamenak aixegetxo@getxo.eus helbide elektronikoaren bidez aurkeztu ahal izango dira edo Janire Ocio Celadaren izenean mezu bat idatziz (jocio@getxo.eus), gaian 'AixeGetxo! 2025' adieraziz.

Proposamen guztiak epaimahai kualifikatu batek aztertuko ditu, eta hori bera arduratuko da sarituak hautatzeaz. Irabazlearen izenak azaroaren 19an jakinarazi egingo dira, 19:00etan Muxikebarrin egingo den sari-banaketa ekitaldian.



Unai Elorriaga, 2025eko Euskarazko Literaturaren Euskadi Saria

Unai Elorriaga getxotarrak 2025eko Euskarazko Literaturaren Euskadi saria irabazi du *Francesco Pasquale-ren bosgarren arima* lanagatik. Ibone Bengoetxea lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak sarituak jakinarazi zituen joan den astelehenean, urriaren 6an, Bilboko Bidebarrieta Liburutegian egindako ekitaldian.



Antzerkia eta dantza asteburu honetan Getxo Eszena jardunaldien barruan

Getxo Eszena Arte Eszenikoen Jardunaldiak jarraitzen dute Muxikebarrin eta asteburu honetan antzerkiaren eta dantzaren txanda izango da.

Ostiral honetan, hilak 10, 20:00etan, *Lo peor que le puede pasar a un niño* ikusi ahal izango da, Ékoma Teatrotren eta Javier Liñeraren eskutik.

Maskulinitatearen eraikuntza eta deseraikuntza bizipen pertsonal batetik aztertzen duen proposamen bat da, zeina kolektibo bihurtzen baita. Sarrera: 10 euro.

Larunbatean, hilak 11, Lucia Lacarraren baletak *Lost Letters* aurkeztuko du 20:00etan. Frank Bracey I. Mundu Gerrako artillerioak bere emazteari idatzitako gutun batean oinarrituta, *Lost Letters*-ek imajinatzen du nola alda zitekeen emakume horren patua, senarrak bidalitako gutuna haren eskuetara inoiz iritsi ez balitz. Sarrera: 18 euro.

Azkenik, hilaren 12an, igandean, ordu berean eta sarrerak agortuta daudelarik, Lola Herrera, bere alaba den Natalia Dicenta eta Carlos Olalla aktoreek *Camino a la Meca* antzeztuko dute. Independentziari, sormenari eta duintasunari egindako kantu hunkigarria da.

Zinema Ikusezina Muxikebarrin

Muxikebarrin, datorren ostiralean, hilak 17, 19:00etan, XVII. Zinema Ikusezinen Nazioarteko Jaialdia, Film Sozialak zinemaldiko ikus-entzunezko lan sorta bat proiektatuko da, jasangarritasuna, genero zuzentasuna, kulturartekotasuna eta Giza Eskubideak sustatzen dituen. KCD Kultura, Communication y Desarrollo GKEak antolatzen du Jaialdia, Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta hainbat erakunderen laguntzarekin, horien artean Udala. Parte hatzen duten 19 ikastetxeren artean, Aixerrota, Romo-Artaza eta Julio Caro Baroja institutuak daude.

Saioa 19:00etan hasiko da, eta honako hauek proiektatuko dira: *Un*



buen rato, *Ez daukate*, *Blood like wáter*, *Pomo d' oro*, *Guardianas del lago* eta *¿Derechos Humanos en el Salvador?*. Sarrera doakoa izango da. Informazio gehiago: www.kcd-ongd.org.

VII. Getxo Dantzan, Romon

Romoko Santa Eugenia plazan izango da larunbat honetan, hilak 11, Getxo Dantzan ekimenaren zazpigarren edizioa, bertako dantza taldeek antolatua. 11:30ean hasiko

da, taldeen harrerarekin eta ondorengo kalejira eta dantzaldiarekin. 13:00etan, tiraka tailerra izango da; 15:00etan, herri bazkaria, eta 19:00etan, erromeria.



"El órgano", generoak gainditzen dituen eleberri laburra

Diego Sanchez Aguilar idazleak (Cartagena, 1974) *El órgano* aurkeztu du Villamonteko Kultura Aretuan, 2024an eleberri laburreko Ramiro Pinilla saria jaso zuena. Eleberri labur bat da,aldi berean tragedia greko bat, polizia-eleberri bat, gizakiaren esentzia kontraesankorrari, deabruzko eta aingerutarri, hilgarria eta hilezkorrari buruzko beldurrezko ipuin bat eta mito garai-kide bat, obraren sinopsian nabarmentzen denez. Funtzionario bat mendiko herri batera bidali dute, bi gertaera susmagarri ikertzeko: elizako sutea eta organistaren heriotza tragikoa. Auzokideekin egindako elkarrizketa batzuen bidez, musikari horren irudi liluragarria eta agian zerutik gertuegi dagoen herri baten sekretu ilunak ezagutuko ditu.

Natur ibilbidea Gobela ibaitik

Hilaren 18an, larunbata, ibilbide natural gidatua egingo da Gobela ibaiaren ertzetik, Getxotik igarotzen den zatian, udalaren Ingurumen Sailak antolatuta *Getxonatura: ezagutu eta zaindu* jardunaldien barruan. Jarduera dohainik eta helduentzat eta 10 urtetik gorako haurrentzat da. Horren bidez, Gobelako habitata eta landaretza, autoktonoa zein aloktonoa, ezagutarazi nahi da, baita bertan bizi den fauna behatu ere.

Ibilbidea Amador Prieto eta Xabier Buenetxea biologo eta naturalista adituek gidatuko dute. Bata zein bestea, getxotar askorentzat hain ohikoa den pasealekuaren ikuspuntu desberdina eta beste ikuspegi bat erakusten saiatuko dira.

Txangoa 09:00etan hasiko da, Areetako Geltokia plazan, plazak ibaiarekin bat egiten duen tokian, eta 12:30-13:00ak arte iraungo du, gutxi gorabehera. Gomendatzen da oinetako eta arropa eroso eta hotzetik babesteko eramatea (eguraldiaren arabera), baita prismatikoak ere (horiek izatekotan).

Parte hartu ahal izateko beharrezkoa da izena ematea boluenatur@gmail.com helbidean.



Arenasek, bestalde, Sorian jokatuko du Numantziaren aurka

CD Getxok Alavesen aurka jokatuko du Errege Kopan

Futboleko Errege Kopako lehen kanporaketaren zozketa egin da aste honetan eta historia handiko bi klubek arteko norgehiagoka ekarri du: CD Getxo eta CD Alaves taldeen arteko kanporaketa. Kopako edizio honetako baldintza berriak, hurbiltasun geografikoarenak, talde getxotarrak Lehen Mailako talde bat egokituko zitzaioala aldeztu aurretik jakitea eragin du, Valladolideko Betis CF taldearen aurkako atariko kanporaketa gaitu ondoren (0-0 joaneko partidaren ondoren). Gainera, maila baxuagoko taldea denez, talde hori-beltzak

etxean jokatuko du, Faturako udal zelaian. Hori dela eta, Getxo taldeak aldaketa batzuk egin beharko ditu Faturan, RFEF Federazioaren baldintzak betetzeko: argiztapena aldatzea eta hainbat harmaila osagarri jartzea.

Kanporaketa partida bakarrera izango da, eta urriaren 28tik 30era artean jokatuko da. Getxo taldearentzat 41 urte geroago Kopako lehen kanporaketa batean sartzea suposatzen du. Alavesen aurkako kanporaketa aurrekari bat dago 1976-77 denboraldian, hain zuzen ere: Getxok 0-1 galdu zuen Fadu-

ran eta Mendizorrotzan ere 1-0 galdu zuen.

Bestalde, Arenas Clubek, maila handiagoko taldea denez, Soriana bidaiatuko du hilaren amaieran ere, RFEFeko 2. mailako Numantziaren aurka jokatuko, Los Pajaritos estadioan. Ez dago aurrekaririk Errege Kopan bi talde hauen artean.

Historikoa-k 2022-23 denboraldian ere jokatu zuen lehiaketa hori, Gobelan, lehen kanporaketa Lugo kanporatu zuenean, eta bigarrenean Valladoliden aurka galdu zuenean (1-5).

ALGORTAKO ARENE PARKEA ERREALITATE BIHURTU DA

